

Igiñitz bidaiaria, irteteko aukera berriaren zain

Aitor Igiñitz Oiartzabal andoaindarrak 15 urte daramatza bizikleta gainean, munduan barrena bidaiatuz. Erronka berriak ditu jomugan, egoerak ahalbidetzen duenean. / 10-11



Eremu gorriak ostalaritza zigortu du, eta itxiera perimetralak merkataritza / 2



Nerea Arruti urnietarra ETB-2ko "El Conquistador del Caribe" lehiaketako partaideetako da / 8-9



Andoain eta Urnieta, gorri

Gizarte bizitzan eragina duten neurri erantsiak ezarri dirabi udalerritan / 2-5



Trasteleku eta biltegi txikien alokairua Urnietan

TRASTELEKUAK MP BATETIK AURRERA ENPRENTZAKO BILTEGI HANDIAGOAK ALTZARI-GORDELEKUAK

barnE

605713127

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA
Bulegoa: Muebles Iturbe
barne.eus

Merkatuko preziorik onenak bermatzen ditugu!



Loli Martos urnietarra Andoaingo Durazno dendako nagusia da. AIURRI

"Ostalaritzaren itxierak min handia eragin dio komertzio txikiari"

LOLI MARTOS ANDOAINGO DURAZNO ARROPA DENDAKO NAGUSIA

Herrien itxiera perimetralak kalte handia egin dio, Andoaingo bezeroez gain eskualdeko asko hurbiltzen baitira bere dendara

Andoni Urbistondo ANDOAIN

Loli Martosek hamarkada eta erdi darama Durazno arropa denda kudeatzen Andoaingen (Urnieta, 49 urte). Pandemiak kolpe handia eragin dio, eta merkataria asko bezala, zalantza putzu batean murgilduta dago. Hainbestean iraun du orain arte, baina beldur da, krisiak ez ote duen luze joko, bera muturreko neurriak hartzera behartuz. Uda-berrian eta udan dauka jarrita esperantza, orduan berpizten baita jendea, eta jendearekin bere arropa denda.

Nor zaitugu, Loli Martos?

Andoaingen 15 urte daramadan merkataria, beti arropa denda batean. Durazno izena du dendak. Azken urteak Arteta kalean egin ditut, lehenago Elizondo plazan egon nintzen. Aurrekoa baino mugimendu handiagoa daukan kalea da oraingoa, eta ondo etorri zait aldaketa. Jendearen begietara dago, anbulatorioa edo ikastolara bidean dagoelako. **Zein puntuan zaude, zehazki?** Lehen etxeratzearen ostean herriarrek erantzun ona eman zuten. Andoaingo Udalak ere

bono laguntzak jaulki zituen, eta jendeak erantzun ona eman zuen. Udaberria ere beti da ona arropa denda batentzat. Neguaren ondoren jendeak kale gogoa dauka, arropa berriren bat erosi... Irailan, ordea, egoera txartu egin zen nabarmen, eta ordutik halamoduzko egoeran gabiltza, burua altza ezinik. Azaroan tabernak itxi zituzten bi astez, eta hori ikaragarri nabaritu genuen. **Ostalaritzak itxi izana asko nabaritu duzue?** Bai, ikaragarri. Jendea kafe bat hartzera irteten da etxetik, eta

ondoren erosketak egin. Ostalaritza itxita baldin badago, ordea, asko etxean geratzen dira, eta hori hondamendia da guretzat. Nik denda pasabidean daukat, ikastolara joaten diren gurasoen pasabidean, eta orain, arratsaldean jendea etxera joaten da zuzenean. Ostalaritzaren itxierak min handia egin digu beste komertzioei.

Irauteko lain egin al duzu lan, edo hori ere ez?

Hainbestean... Arropa dendetan epe luzera erosten dugu materiala, eta hor kontuz ibili behar izan dut, zer erosi, zer ez, zulo handiegirik ez egiteko. Oraintxe hurrengo neguan saldu nahi dudana erosi behar dut. Zer egin? Erosi? Ala ez? Erosten ez badut generorik gabe geratzen naiz... Baina erosiz gero, eta saldu ez, galera handiak pilatzeko arriskua dut... Izan dira egunak, udazken-negu honetan, salmenta bakar bat egin gabe joan naizena etxera, jota. Liburuak irakurri eta irakurri aritu naiz sarri, zortzi lanorduak nola edo hala betetzeko.

Jendeak dirua supermerkatuan eta telebista kateetan erabili omen du. Arropa dendetan, bistan da, ez...

Hala dirudi. Garairik gogorrenetan ere, Gabonetan, Olentzero dela, Erregeak direla, beherapen garaietan beti mugitu izan da salerosketa dezentze. Aurten ia ezer ez. Etxeratzeak ere internet bidezko erosketak ikaragarri handitu ditu. Jendeak etxean egon behar du, eta erosketak internet bitartez egiten ditu, kalera jaitsi eta dendan erosi beharrean. Horrek ere min handia egin dio herriko komertzioari. Internet geroz eta aurkari indartsuagoa da.

Inguruko herrietako bezero asko hartzen dituzu.

Bai. Urnieta, Villabona, Hernani, Lasarte-Oria eta Tolosako jendea... Amasa-Villabonako jende dezentze etortzen da, askok anbulatorioko zerbitzua Andoaingen dutelako. Etortzen direnean dendatik pasatzen dira. Orain jendeak herri batetik bestera mugitu ezin badu, esango didazu, ze martxa... Hainbat salmenta egin ditut,

bukatu ezin izan direnak neurri kontuagatik eta... Orain itxiera perimetrala bukatu arte itxaron beharko dut, baino batek daki noiz bukatuko den... Andoaingen, gainera, hirugarren astea darabugu dagoeneko gorrian.

Egoera gehiago okertzearen beldur zara?

Ez dut uste, edo ez nuke nahi, baina arriskua hor dago. Udaberria ere iritsiko da, eta pandemia ere desagertuko da egunen batean, baina orain daukagun egoerak beste sei edo zortzi hilabete iraunten badu, pentsa... Normalean udan askoz salmenta gehiago egiten dut. Alokairuan nago, eta ordu piloa sartzen dut. Alokairua ordaintzeko bakarrik ematen badit, ba zerbait pentsatu beharko dugu, noski... Eskerrak pandemia iritsi aurretik salmentak eta txukunak izan ziren, eta oinarri pixka bat egin genuen. Pasa den urtean halako outlet bat egin genuen, eta salmentak onak izan ziren. Ea halako zerbait errepikatzen dugun, eta negozioari bultzadatzkoa eman.

Udalaren laguntzarekin konforme zaude.

Bai, atera zituzten bono laguntzak, eta herritarren harrera oso ona izan zen. Akaso beste kanpainaren bat abiatu behar dute, jendea erostera bultzatzeko berriz.

Bestelako diru laguntzarik jaso duzu?

Udalak agindutakoa bete du, eta diru laguntza eman digu. Lanbiden ere eskatu nuen, baina gutun batean esan zidaten ez zegoela dirurik, eta aho bete hortz geratu nintzen. Eusko Jaurlaritzara egindako lehen eskaeran ezezkua eman zidaten, baina aholkularitza bulegotik esan didate beste agiri batzuk bidaliz gero, jasotzeko aukera izango dudala, eta horretan ari naiz. Bestalde, Udalak esan zigun uztaile-abuztua-iraila hiruhilekoan fakturazioa %30 jaitsi zela frogatzen bagenuen alokairua ordaintzeko eta beste lagunduko zigitela, ea gauzatzen den. Laguntza oro izango da ongi-etorria, gure egoeran. Espainiako Gobernutik ez dut ezer jaso, baina eskatzea posible ote den ere ez dut garbi...

"ITXIERA EZARRI ARTE VILLABONA, LASARTE, HERNANI ETA URNIETAKO BEZEROAK NITUEN"

"INTERNET SAREA GEROZ ETA AURKARI INDARTSUAGOA DA MERKATARIONTZAT"

"Erantzukizunez jokatu behar du herritarrak"

LAURI EIZMENDI URNIETAKO UDALTZAINBURUA

Urnietako Udaltzain buruak garbi dio euren zaintza lanarekin bakarrik ez dela nahikoa, eta arauak betetzen badira, datuak hobetu egiten direla

Andoni Urbistondo URNIETA

Herrietako itxiera perimetrala agintzen duen txostena ikuskatzen buruko min franko izan ditu Lauri Eizmendi Urnietako Udaltzain buruak. Zer egin daitekeen, zer ez... "Herritarrek ulertze aldera, lan, hezkuntza edo osasun kontuengatik ez bada, ezin da herritik irten, eta kasu horietan, behar hori argitzen duen agiria eskatuko da". Astelehen eguerdian intzidentzia tasa 750era igo da Urnietan. "Adituek ohartarazi gintuzten, Gabonetan oso lasai ibili ginela, marmotaren egunean bezala bueltan gatoz. Ez ditugu gauzak ondo egiten, edo ez dugu ikasten". Eta zergatik, bada? "Ez dakit. Ziur aski kasu gehienetan Covid 19aren ondorio mingarriena ez delako gehienek begietaraino iritsi, ez dutelako birus horren aurpegi gaiztoena ezagutzen, gertuko senitartekoren baten bitartez, eta garrantzia kendu Covid-ari".

Orain herritik atera ezinik egon beharko dugu, tabernak itxita, eta datozen hoge egunerako, gutxienez. "Otsailaren 15a arte ziurtzat jo dezakegu itxiera perimetrala. Orduan ikusiko da zer ematen duten zenbakiek. Aurreikuspenak egitea alferrikakoa da". Udaltzainek jarrera informatzailea izango omen dute, zigortzailea baino gehiago. "Beti bezala, aurreneko aukeran, galdetu, eta bigarren arau hauste bat ematen bada, ba zigorra jarri". Iazko martxo-apirileko etxeratzean indarrean jarri zuten antzeko lanketa izango dute orain ere: "kalean kontrol gehiago, mugikortasunean jendeari galdetu, nora doan eta zertara". Garbi du gehiengoak arauak errespetatuko dituela, baina baita "gutxiengo bat horiek ez betetzen saiatuko dela". Euren zainketa lana oraingoan iazko martxoan baino zailagoa izango dela uste du Eizmendik, "ezin



Lauri Eizmendi Urnietako udaltzain-buruak. AIURRI

delako herriko sarrera nagusiak 24 orduz zainduta eduki. Ezinezkoa da Mandazubi edota Irurainen 24 orduko kontrolak jartzea, baliabiderik ez dugulako. Jendeak laguntzen ez badu, guk jai dugu".

Arauei iskin egiteko tentazioa

Zaintza lan horren inguruan, Eizmendi ziur da Andoain edo Hernanira joan nahi duenak zirrikituren bat bilatuko duela: "Izan autoan, bizikletan edo oinez, toki batetik edo bestetik. Norberak erabaki behar du arauak betetzea edo ez, erantzukizunez jokatu edo ez. Eman nahi nukeen mezua hau da: neurri zorrotzen iraupena gure jokaeraren arabera izango da, eta herritarrek hori ulertzea nahi genuke. Alegia, arauak betetzen badira, datuek hobera egiten dute. Betetzen ez badira, ez".

"NEURRI ZORROTZEN IRAUPENA GURE JOKAERAREN ARABERAKOA IZANGO DA"

Herritarrak triste sumatzen ditu

Martxoan pandemiak erasan gintuenetik urtea beteko da, eta Lauri Eizmendik udaltzain-buruak herritarrak triste sumatzen dituela dio: "Erreta. Gazteak gazte direlako eta ezin dutelako parrandarik egin. Zaharrak bere azken urteak direlako, eta itxuraz euren azken hilabeteak izan daitezkeen garaian egoera latza bizitzen ari direlako. Jende asko muga-mugan dago, eta sumatzen da, asko *trante* txarra pasatzen ari dela".

"EZINEZKOA DA 24 ORDUZ KONTROLAK JARTZEA, JENDEAK LAGUNTZEN EZ BADU, GUK JAI DUGU"



Ostalariek lehen elkarretaratzea egin zuten, asteartean. AIURRI

Andoaingo ostalarien mozioa

Urtarrilaren 26an hasita, ostalariek asteartero elkarretaratzea egitea erabaki dute. Ostegunean, bestalde, mozioa aurkeztukoak ziren Udaletxean. Ostalaritza Aurrera Gipuzkoa plataformarekin lankidetzan, mozioaren azalpenetan, honako argudioak irakur daitezke: "Gipuzkoako ostalariok, tokian tokiko egoera epidemiologikoaren arabera, negoziok 106 eta 125 egun artean itxita eduki ditugu. Gaueko ostalaritzak, berriz, 7 hilabetetik gora darama erabat itxita. Eta itxita egondako epean ere, gure gastu finko guztiak ordaintzen jarraitu behar izan dugu: telefonoa, aholkularitza-gastuak, aseguruak, gastu informatikoak, gasa, argindarra, OHZ-a, zaborren eta terrazen tasak, alokairuak, maileguak, banketxe-gastuak, suhitzalgailuen mantenua, alarmen hileroko kuota, SGAE...". Administrazio ezberdinen ahalegina aitortu arren, ez dela nahikoa diote.

Urtearen herena baino gehiago bizitzeko gutxieneko dirsarrerarik gabe gelditu direla salatu dute: "Gipuzkoako ostalari gehienok autonomo txikiak gara, lokal bat edo bi errentan edo jabetzan ditugu, baina ez dugu diru-sarrerarik eguneroko bizitzako gastuei aurre egiteko. Egoerak hainbat familia miseriara garamatza. Gure egoera animikoa ere desesperazioaren mugan aurkitzen da. Ez dugu lan egiterik izan eta ezin izan dugu soldatarik eraman geure etxeetara". Egoeraren larritasuna Udalarizuzenean aurkeztu nahi diote, bi puntuko mozioa aurkeztuz:

- "Gipuzkoako ostalaritzaren egoeraren berri ematea Eudeli, Foru Aldundiari, Legebiltzarrari eta Eusko Jaurlaritzari".
- "Aipatutako erakundeei eskatzea, ostalariok bizi dugun egoera ekonomikoari irtenbidea ematearren, martxoaren 14az geroztik, atzera eraginarekin, Gipuzkoako ostalaritzako autonomoei hileroko gutxieneko soldata aitortzea eta berori bideratzeko beharrezko diren izapideak burutzea".



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

Egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.
DATUAK, EGUNEZ EGUN

www.aiurri.eus

Urnietako Udalak neurri berriak hartu ditu

Udalaren neurriak urtarrilaren 26tik aurrera ezarri ziren. Erakundeak adierazi bezala, "Eusko Jaurlaritzaren ebazpen ofizialetan Urnietak eremu gorrian jarraitzen duen bitartean iraungo dute"

Erredakzioa URNIETA

Egoera berriarekin duda-mudatan egon daiteke urnietar bat baino gehiago.

Bertan herritarrentzako arreta-bulegoa zabalik izango da?

Bai, baina bakarrik behar-beharrezko kasuetarako. Gainerako kasuetan telefono bidez eta internet bidez eskainiko da arreta zerbitzua.

Udal ikastaroak eten egingo dira?

Ez. Ez dira etengo, baina prebentzio-neurri berriak areagotuko dira. Baita Gazte Informazio Puntuan, Gaztelekuan eta gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuan ere.

Kiroldegia irekita egongo da?

Bai, baina soilik banakako erabilerarako. Eta aurrez hitzordua eskatuta Urnieta.eus webgunean edota Urnieta APP bidez.

Klubek euren jarduerak eten egin beharko dute.

Ikasgela, Udal Liburutegia irekita egongo dira?

Bai, baina mahai bakoitzean pertsona bat baino ez da egongo. Liburutegian, bestalde, liburuak alokatzeko zerbitzua baino ez da eskainiko.

Kultur programazioarekin aurrera egingo da?

Bai, Eusko Jaurlaritzak emandako neurriak betearaziz.



Sarobe arte eszenikoen gunean ekitaldiak antolatu ahal izango dira, beti ere, Eusko Jaurlaritzak emandako neurriak betearaziz. AIURRI

Udal eraikinetan ekitaldirik antolatuko daiteke?

Ezinezkoa izango da ekitaldiak antolatzea.

Haur parkeen ordutegia:

Arratsaldeko 20:00etik goizeko 09:00ra itxita egongo dira.

"KIROLDEGIA SOILIK BANAKAKO ERABILERARAKO IREKIKO DA, AURREZ HITZORDUA ESKATUTA"

Prebentzio neurriak:

Erabili musukoa uneoro, eskuak maiz garbitu, 1,5 metroko distantziak errespetatu, berrogeialdiak zorrotz egin eta sintomarik izanez gero, deitu Urnietako osasun-zentrora: 943 00 66 80.

"UDAL ERAIKINETAN EZINEZKOA IZANGO DA EKITALDIK ANTOLATZEA"

Euskadi osoan indarrean dauden neurriak

Astelehenean hasita, LABiren neurri berriak ezarri ziren. Gehienez ere 4 pertsonako taldeak biltzea baimenduko da

Erredakzioa ANDOAIN

Honakoak dira Eusko Jaurlaritzak ezarritako neurrien laburpena:

- 22:00-06:00 Etxeratze agindua.
- 21:00 Merkataritza- eta kultura-jarduerak bertan behera uzteko gehieneko ordutegia.
- %40ko aforoa: 150 m² baino gehiagoko merkataritza-establezimenduetan
- %60ko aforoa: 150 m² arteko azalera dutenetan. Edukiera murriztuak, era guztietako ekitaldietarako.
- %35: Kultur-aretoetako gehieneko edukiera mugatzea.
- Musika- eta ahots-entsaioak eta emanaldiak bertan behera uztea.

Neurri sorta hori udalerrri guztietan aplikatu behar da, egoera epidemiologikoa hobea edo txarragoa izan.

LABiren neurri sorta

Urtarrilaren 25ean indarrean sartu zirenak:

- Konfinamendu perimetrala EAEko udalerrri guztietara zabaltzea. Neurri honen helburua mugikortasuna are gehiago mugatzea da.
- Pertsonak gehienez ere 4ko taldetan biltzeko muga ezartzea, bai erabilera publikoko espazioetan, bai erabilera pribatuko espazioetan.
- Eremu gorrian dauden udalerrrietan, gainera:
- Ostalaritza itxita.
- Eskola-kirola eta kirol jarduerak ez ofizialak bertan behera uztea.

Erantzukizunpeko adierazpena

Kanpoko joan-etorriak justifikatzeko beharrezkoa da. Aiurri. eus-en eskuragarri dago.



Kontrola Txistoki zubiaren ondoan, Andoaingo sarbide eta irteeretakotik. AIURRI

Kontrolak ohikoak bilakatu dira Andoaingo sarbideetan

Andoaindik irten edo Andoainera sartzeko kontrolak egiten ari dira, nagusiki Udaltzaingoa

Erredakzioa ANDOAIN

Konfinamendu perimetrala EAEko udalerrri guztietara zabaltzeko arrazoiak argia da: Mugikortasuna are gehiago mugatzea. Baina bada salbuespena, bereziki herri txikiagoetatik Andoainera edo Urnietara hurbildu nahi

dutenentzat. Eusko Jaurlaritzak "Ohiko galderen erantzunak" izeneko gida argitaratu eman du, eta bertan honakoa adierazten da: "Udalerritik irten ahal izango da bizi den udalerrian ez dauden erosketak egiteko edo zerbitzuak eskuratzeko".

Jardunean jarraitzeko aukera dute

Eskola-Kirola eta taldeko jarduerak eten egin dira Urnietan, eremu gorrian jarraitzen duten arte. Gizonezkoen Euskadiko Senior Ligan ari denez, UKEko lehen lehian jarraitu ahal izango du. Asteburu honetan atsedena dute. Partida bakarra jokatu dute, oraingoan.



Andoaingo eta Urnietako egoera ez da hobetzen ari

Bi herrietan metatutako intzidentzia tasa handi samarra da, eta gaur-gaurkoz ez da jaitsieraren arrasto handirik antzematen. Urtarrilaren 15ean hasita, positiboak kopurua biderkatu egin zen Urnietan. Andoainen joera hori lehenago hasi zen

Erredakzioa URNIETA

COVID-19 izurritea eragin handi samarra izaten ari da, urte hasiera honetan. Osasun mailako kalteez gain, kezka erantsiak sortu ditu. Bereziki, eremu gorrian sartzeak berarekin neurri-sorta zorrotza ezartzea dakarrelako. Ostalaritza itxita dago bi udalerrietan, eta itxiera perimetralak kalte erantsia eragin du tokiko merkataritzan.

Birusaren eragina, gaurkoz, ez da udazkenean bezain gogorra izaten ari. Andoainen, azaroaren 10ean, intzidentzia tasa 1057,21eraino iritsi zen. 2021eko urtarrilean kezka handiz bizi da egoera, baina oraindik ez gara milako langara iritsi.

Konparazioa Urnietan egiten hasiko bagina, diferentzia agerriagoa da. 2020ko azaroaren 3an Urnietako intzidentzia tasa 2.778,68koa zen. Gaurkoz 700-800 arteko langa horretan dago.

Krisi honetan erabiltzen ari diren hizkera aipatzen hasita, bi kasuetan meseta edo goi-lautada egoera gaude. Altuera handi samarrean dago, "larritasunaren" eskalan. Eta ez zaio jaitsiera handirik izango duen itxurarik hartzen. Bereziki Euskadi osoko egoera okertzen ari delako. Positibotasun tasa %8tik gora egotea ez da seinale ona.



Kasu positiboak, egunez egun

228 KASU POSITIBO ANDOAINEN, URTARRILAN ZEHAR

Urtarrilak 1: +1.	Urtarrilak 10: +3.	Urtarrilak 19: +7.
Urtarrilak 2: +3.	Urtarrilak 11: +8.	Urtarrilak 20: +12.
Urtarrilak 3: +4.	Urtarrilak 12: +10.	Urtarrilak 21: +10.
Urtarrilak 4: +16.	Urtarrilak 13: +9.	Urtarrilak 22: +7.
Urtarrilak 5: +7.	Urtarrilak 14: +8.	Urtarrilak 23: +10.
Urtarrilak 6: +9.	Urtarrilak 15: +17.	Urtarrilak 24: +9.
Urtarrilak 7: +7.	Urtarrilak 16: +8.	Urtarrilak 25: +10.
Urtarrilak 8: +18.	Urtarrilak 17: +10.	Urtarrilak 26: +14.
Urtarrilak 9: +9.	Urtarrilak 18: +2.	

63 KASU POSITIBO URNIETAN, URTARRILAN ZEHAR

Urtarrilak 1: +1.	Urtarrilak 10: +1.	Urtarrilak 19: +6.
Urtarrilak 2: +0.	Urtarrilak 11: +2.	Urtarrilak 20: +2.
Urtarrilak 3: +0.	Urtarrilak 12: +2.	Urtarrilak 21: +4.
Urtarrilak 4: +0.	Urtarrilak 13: +1.	Urtarrilak 22: +2.
Urtarrilak 5: +4.	Urtarrilak 14: +2.	Urtarrilak 23: +2.
Urtarrilak 6: +0.	Urtarrilak 15: +4.	Urtarrilak 24: +7.
Urtarrilak 7: +0.	Urtarrilak 16: +3.	Urtarrilak 25: +6.
Urtarrilak 8: +0.	Urtarrilak 17: +4.	Urtarrilak 26: +6.
Urtarrilak 9: +0.	Urtarrilak 18: +4.	



Hernaniko alde zaharra. KRONIKA

Beterri-Buruntzako sei udalerrietik lau eremu gorrian

Joan zen ostiralaz geroztik eremu gorrian sartu ziren Lasarte-Oria eta Hernani, Urnietarekin batera

Erredakzioa URNIETA

Ostiraleko Osakidetzaaren boletinean eskualdeko sei udalerrietatik lau eremu gorrian sartu ziren. Eta asteleheneko boletinean berriro ere gorriz seinaleztatuta agertu ziren Andoain,

Hernani, Lasarte-Oria eta Urnieta. Ondorioz, lau udalerrietako ostalaritza eta kirol jardueira etenda dago. Intzidentzia, gainera, goruntz doa eskualdeko beste bi herrietan (Hernanin, 650,96; eta Lasarte Orian, 677,34).

Pandemiaren garapena, astez aste

ANDOAIN

- **Urtarrilak 20-Urtarrilak 26:** 72 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 887,38.
- **Urtarrilak 13-Urtarrilak 19:** 61 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 834,00.
- **Urtarrilak 6-Urtarrilak 12:** 64 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 660,53.
- **Abenduak 30-Urtarrilak 5:** 35 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 413,66 (urt7).
- **Abenduak 23-29:** 18 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 267,65.
- **Abenduak 16-22:** 21 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 200,74.
- **Abenduak 9-15:** 9 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 80,29.
- **Abenduak 2-8:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 194,04.
- **Azaroak 25-abenduak 1:** 26 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 515,22.
- **Azaroak 18-24:** 51 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 796,25.

URNIETA

- **Urtarrilak 20-Urtarrilak 26:** 29 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 853,60.
- **Urtarrilak 13-Urtarrilak 19:** 16 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 467,06.
- **Urtarrilak 6-Urtarrilak 12:** 5 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 177,16.
- **Abenduak 30-Urtarrilak 5:** 6 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 112,74 (urt7).
- **Abenduak 23-29:** 1 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 16,16.
- **Abenduak 16-22:** 0 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 113,09.
- **Abenduak 9-15:** 7 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 161,55.
- **Abenduak 2-8:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 113,09.
- **Azaroak 25-abenduak 1:** 4 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 274,64.
- **Azaroak 18-24:** 13 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 306,95.




Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas

MATRIKULA LIBREA. 2021

Frantsesa eta ingelesa
A1 - B1 - B2 - C1

Matrikula ONLINE:
Otsailaren 1eko 10:00etatik,
otsailaren 12ko 13:00ak arte
Prezioa: 36,18€

www.eoitolosaeoi.hezkuntza.net - info@eoitolosaeoi.net - 943 69 75 60



Belarra berde-berde dagoela, basurdeek lurra erabat aratu dute zelaietan kalteak eraginez. NIKO URRUTIA

Basurdearen eragina larrean

Azken urteetan basurdeak ugaritzearen ondorioz, kalteak pairatzen ari dira baserritarrak beren belazeetan. Leizotz aldeko Bista Eder "Xaxin" baserrian, esaterako, aurreko egunetan hirutan sartu ziren basurdeak

Olatz Lasa ANDOAIN

Urtarrilaren 15ean Eusko Jaurlaritzak Andoainen ezarritako itxiera perimetrala dela eta, andoaindar ugarik mendira joatearen hautua egin zuten. Igan-de horretan bertan, Goiburu eta Leitzaan aldean, uxaldia edo basurde ehizan ari ziren Fielato ehiztari elkarteko kideak. Familiak, mendizaleak eta kirolariak inguru haietatik igaro ziren eta kasu askotan uxaldia-ekin topo egin zuten. Aiurrik ondorengo galdera planteatu zuen Aiurri.eus webgunean, jendea bere iritzia ematera ani-

"FAUNAREN KONTROL LANA EGITEN DUGU EHIZTARIOK, GAITZAK KONTROLATZEKO"

NIKO URRUTIA, FIELATO TALDEA

matuz: "Andoain eremu gorrian sartuta dago, eta konfinamendu perimetrala ezarrita. Andoain-darrek mugikortasuna murriz-tuta izanik, jai egunetan horre-lako ehiza baimendu behar dela uste al duzu? Zein da zure iri-

tzia?". Alde bateko eta besteko iritziak sortu ziren.

Ehiztariak bertan egoteak badu bere arrazoia. Azken as-teetan kalteak eragiten ari dira basurdeak Andoaingo landagu-ne ezberdinetan. Leizotz auzoan

kokatzen den Bista Eder 'Xaxin' baserrian kasu, pasa den astean hirutan eragin zituzten kalteak basurdeek. Bertan bizi da Joxean Usarralde. Mahai berean dago Andoaingo Fielato ehiztari taldeko lehendakaria den Niko Urrutia.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizia-laren arabera, ehiza 08:00etatik 17:30ak bitartean praktikatu daiteke. Ehiza jarduna haste-rako, bestelako lanak egin behar izaten dituzte ehiztariak, esaterako, baserritarrei deitu ardiak baztertzeko eskatuz, uxaldia emango denaren kartelak ipini... Goizean goiz basurdeak utzita-ko arrastoak topatu behar di-tuzte zakurzaleek, ehiza eremua oraindik eta kontrolatuago edukitzeko. Niko Urrutiak azal-du duenez, "ehiza askok ulertzen dute animaliak hiltzea dela eta horretara baino ez garena joaten; baina ez da horrela. Informazio gehiago zabaldu beharko genu-ke, ez dakienarentzat". Baserri-tarrek kalteak sufritzen dituz-tenean, ehiztariei deitzen diete jakinarazteko, eta Aldunditik ere zehazten diete zein zonal-detan eman diren kalteak uxal-dia bertan antolatzeke.

Ehizaren atzealdeko lanak

Ehiztariak egiten dituzten lanak animaliak ehizatzeetik haratago doala azpimarratu du ehiztariak: "Faunaren kontrol lana ere egi-ten dugu. Ehizatzen dugun ba-surde bakoitza Fraisoro labo-rategian aztertzen da jakiteko animaliak gaitzik ba ote duen, eta gaitzik badu animalia-aren bat kutsatzeko arriskua egon ote den, gainontzean gizakion-gana iritsi daitekeelako gaitza". Ehiza denboraldia amaitutakoan, Fielatoko ehiztariak mendia garbitzera joaten direla gehitu

du, 40 lagun inguru. "Ehizatze-ra zenbat egun joan garen kal-kulatu eta egun kopuru berdi-na joaten gara mendia garbi-tzera: sasiak moztu, bideak garbitu... Kalean bizi den askok hori ez dakite".

Bestalde, ehiza praktikatzek, animaliek eragindako errepi-deko istripuak gutxitzea daka-rrela dio Niko Urrutiak. Adi-bide bezala jartzen du Lasarte-Oriatik Andoainera arteko errepedean eman izan diren istripuak.

Joxean Usarralde lanean zortzi ordu igaro eta baserrira itzultzean, basurdeek eragin-dako kalteak konpontzen aritu behar izan du. Kalte horiek konpontzeko erakundeetatik laguntzik ez dutela jasotzen salatu du, eta egoera "sosten-gaezina" izatera iritsi dela: "Deno gustatzen zaigu Leitza-ran txukun edukitzea, baina lur horiek jabeak dituzte, eta nagusi horiek beren poltsikotik jartzen dute dirua ondoren guztiek gozatzeko. Erakundeek ez dute dirurik jartzen".

Irtenbidea bilatu nahian

Basurdeak etxe atariraino etor-tzea saihesteko eta animalia horiek eragiten dituzten kalteak ekiditeko irtenbidea topatu nahi du Usarralde. "Benetako apus-tua egin behar dugu landagu-nean, eta lehen pausua erakun-deetatik etorri behar da. Ehi-zarik ez dela egin behar? Orduan zein irtenbide emango zaio arazoari? Gaur-gaurkoz ehiz-tariak hiltzen dituzten basurdeak ez balituzte hilko, are larriagoa litzateke egoera". Horregatik, Aldundiari, Udalarari eta irten-bideren bat proposatzeko prest dagoen orori mahai baten buel-tan guztien artean irtenbidea topatzeko deia luzatzen die.

Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza, diru-sarreraren ehuneko handiena baserriko lanetatik lortzen duen baserritarrari baino ez ematea salatzen dute, gainontzekoek ere laguntza jaso beharko lu-keteela eskatuz.

"EHIZARIK EZ DELA EGITEN BEHAR? ORDUAN ZEIN DA IRTENBIDEA?"

JOXEAN USARRALDE, 'XAXIN' BASERRIA

Zergatik altxatzen du lurra basurdeak?


Basurdeak animalia orojaleak dira. Sustraiak, fruituak eta intsektuak jaten dituzte. Oso usaimen ona daukate eta lur azpiko jana usaintzeko gauza dira. Horren eraginez larrean txikizioak egiten dituzte, eta euren aztarnak oso agerikoak dira. Lokatzetan iraulkatzea oso gogoko dute, parasitoak gainetik kentzeko eta berrien gerturatzea saihesteko.



Basurdeek eragindako kalteen bideoa ikusteko, eskaneatu QR kodea.



Lehen planoan, Andoaingo herrigunea. Atzealdean arrosa koloreko argi fluoreszentea, 2,5 km-ko distantzira. AIURRI



Urnietako Goiburu aldean daude Alberro S.L. enpresaren instalakuntzak. AIURRI

Urrutitik ikus daitekeen argia

Urnietako Xoxokako bidean dagoen Agroaldea haztegitik irteten den arrosa koloreko argi fluoreszentea urrutitik ikus daiteke. Esperimentazio fasean dagoen egitasmo da; tomatearen ekoizpenerako argi artifiziala sortzea

Xabier Lasa ANDOAIN

Eskualdean, nonahitik ikusi daiteke argi artifizial hori, eta batez ere ilunabar aldera, egun argia ezkutatu ahala, era askotako efektu bisualak eragiten

ditu, behe lainoko egunetan batik bat; aurora boreala deituriko distira edo luminiszentzia itxurako fenomenoak, besteak beste. Bada umorez esaten duenik ez dagoela Finlandiara,

Islandiara edo Norvegiara joan beharrik halako fenomeno argitsuak ikusteko... Argi kutsadura sortzen duelako kekak entzuten dira ere. Alberro S.L. enpresako arduradun Xabier

Alberrok Aiurriri adierazi dioenez, esperimentazio fasean dago. Uda arte iraungo du prozesuak, eta orduan aztertu ahal izango dituzte emaitzak. Proiektuak baimen guztiak dituela dio, eta jakinaren ganean daudela nekazarien elkartek, Gipuzkoako Foru Aldundia zein Eusko Jaurlaritza ere.

Sentsoreekin funtzionatzen du Agroaldea haztegia jarri den argi artifizialaren mekanismo horrek. Sentsoreek argi naturalaren indarra neurtzen dute, eta nahikoa sumatzen ez dutenean, argiak piztarazten dituzte; osagarri gisa funtzionatzen dute, hortaz. Mekanismoa soilik egunez dago martxan, gauez itzalita dagoela dio. Baina goizean goiz, giroa oraindik ilun samar dagoenean argi izpiak Andoaingo herriguneko leku askotara

iristen dira. Urnietan ez ezik, Astigarragan eta Hernanin ere badauzka negutegiak. Enpresa digitalizazioak eskaintzen dituen erraminta berriak ezartzen ari da haztegi horietan. Era horretan, mugikorrek aplikazio berrienak erabiltzen ditu produktuen ekoizpena biderkatzeko. Bestalde, negutegien instalazioak polikarbonatoz estalita daude, leku menditsuetan jarrita, tomatearen landareak argi natural gehiago jaso dezan eta behealdean baino hezetasun baxuagoa edukitzea.

TOMATEA EKOIZTEKO SISTEMA ESPERIMENTAZIO FASEAN DAGO, UDA ARTE IRAUNGO DUENA

Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoaingo urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behe. 20140, Andoaingo. Tel.: 943 300 732. andoaingo@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Rocio Arias (Andoaingo), Axun Jauregi eta Joxe Mari Sagaseta (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.
Zorion agurak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA:

ALIATUAK:

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

DIRLIZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

ZIURTAGIA:

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Nerea Arruti urnietarra "El Conquistador del Caribe" Euskal Telebistan arrakasta handiena duen telebista saioko parte-hartzailea da. AIURRI

"Alperrik joango zara psikologikoki ondo prestatua ez bazaude"

NEREA ARRUTI ETB-2KO "EL CONQUISTADOR DEL CARIBE" SAIOKO PARTE-HARTZAILEA ETB2ko realityko lehiakideetako bat izan da urnietarra, han izandako bizipenak kontatu dizkio Aiurri

Mikel Arberas ANDOAIN
Nolatan otu zitzaizun "El conquistador del Caribe" saioan izena ematea?

Egia esan, lagunek programan parte hartzeko animatzen ninduten sarritan, balio nuela esaten zidaten. Azkenean, urteak

igaro eta igaro, lagun batek bideo kastina egin eta bidali egin zuen. Aurtengoan Kariberra joan behar nuela esan genion

geure buruari, asko pentsatu gabeko erabakia izan zen.

Bideoan niri buruz hitz egiten dut eta, ondoren, nire trebetasunak erakusten ditut; esaterako, crossfit-eko ariketak egin, apur bat tximinoa bezala zintzilikatu eta nire kirol gaitasunak grabatu nituen.

Nola jakinarazi zizuten hautatua izan zinela?

Uste dut ostiral batean izan zela, entrenatzen nengoen eta deitu egin ninduten. Inori ezer ez esateko esan zidaten, aurre-aukeratua izan nintzela telebista saiorako. Aukeraketaren ostean, froga fisiko batzuk egin behar izan nituen, programan parte hartzeko gai nintzela erakusteko. Hala ere, pentsatzen dut, parte-hartzaile gehiago egongo zirela ni bezalaxe aurre-aukeratuak.

Zer pentsatu zenuen programara joateko hautatua izan zinela jakitean?

Saltsa ederrean sartu nintzela, horixe izan zen pentsatu nuen lehen gauza. Ez nuen uste inolaz ere deituko nindutenik. Gainera, ezin nuen ezer esan, sekretuan mantendu behar nuen. Hala ere,

hara joateko gogo izugarria piztu zitzaidan, ezin nuen sinistu hautatua izan nintzela.

Programan parte hartzearen sekretua ezkutuan mantendu zenuen?

Hasiera batean, bideoa egiten lagundu zidan lagunak soilik zekien "El Conquis"-en parte hartuko nuela. Ez nion inori gehiago esan, ez nekielako ziur Kariberra joango ote nintzen. Hara joango nintzela jakitean, orduan jakinarazi nien familiakoei.

Ez da erraza disimulatzea horrelako gauza bat, zeren eta munduaren beste aldera zoaz denboraldi baterako. Beraz, lagunei lan-bidaia bat egin behar nuela esan nien. Zerbait sumatuko zuten agian, izan ere, Covid-19 garaian lan kontuengatik bidaiatzea ez da oso ohikoa. Gainera, mugikorra erabiltzeko arazoak izango nituela azaldu nien. Ez dakit esandako zerbait sinistu zidaten ere.

Kirolari askok ematen dute izena, baina fisikoaz gain zerbait gehiago behar da?

Mentalki oso indartsua izatea ezinbestekoa da. Kirola egiteak eta fisikoak garrantzia handia dute bai, baina psikologikoki ondo prestatua ez bazaude, alperrik joango zara.

Aurtengoan behintzat, kirolari fin asko daude. "Pertsonajeez" ere asko hitz egin da, baina gauza asko egin dituzte. Ez dira uste duzuen bezalakoak, parte-hartzaile onak dira, eta gehienak kirol askoko kirolariak dira.

Kamerek leku guztietara jarraitzen zintuzten?

Niri telebista kamerak ez zaizkit batere gustatzen. Hala ere, bertan zaudenean bestelakoa da egoera. Ez da reality bat bezalakoa; kamerak inguruan dabilta eta ikusi egiten dituzu, askotan zeure ondoan daude, baina gauzak egiten aritzen zara. Badakizu grabatzen ari direla, hala ere, zuk irabaztean eta proba ahal bezain ongien egitean duzu burua. Etxera joateko arriskua eta irabazteko aukera dagoenean, ingurukoaz ahaztu egiten zara.

Zer eman diozu programari?

Nire ustez, oso lehiakorra izan naiz. Normalean ikusten diren emakumezkoak ez dira oso indartsuak, baina beste ariketa batzuetan nabarmentzen dira. Norbanako gisa, pertsona baliointzuna naizela esango nuke, gauza askotan nahiko ondo moldatzen bainaiz.



Nerea Arruti urnietarra, etxeko sotoan prestatu duen kirolgunean. AIURRI

Pandemia garaian grabatutako programa izanda segurtasun neurriak ugariak izango ziren, ezta?

Neurri zorrotzak hartu zituzten, bai. Joan baino lehen, PCR ugari egin genituen. Langileek ere neurri asko bete behar dituzte. **Karibeko irlara joateko prozesua nolakoa izan zen?**

Lehendabizi pertsona batzuekin elkartu ginen eta ez genekien geure taldekideak izango ziren ala ez. Ondoren, leku batera eramaten gintuzten eta, azken mementoan, nora joango ginen azaldu ziguten. Hasteko zorian ginenean taldekideak nortzuk izango ziren aditzera eman zituzten.

"El conquistador" programan parte hartzeko prestakuntza berezirik egin zenuen?

Saio ezberdinetako probak ikusi nituen, eta horren arabera pres-

tatu naiz. Esaterako, bai ala bai *jumareatzen* (sokatik gora igo) ikasi beharra dago. Ariketa batzuk nahitaez ikasi behar dira, bestela jai daukazu. Beharrezkoa da prestakuntza gehigarri bat egitea gogor lehiatu nahi bada; bestela, zertara zoaz haraino? Korrika egin zenezake entrenamendurik gabe, baina seguruena ez zara urrutira iritsiko.

Irakurle askok jakin nahiko dute. Benetan horren gogorra al da lehia-keta?

Oso gogorra da. Telebistatik errazagoa dirudi, baina bertan bizi nuena oso bortitza izan da. Han igarotakoa ezin da alderatu orain arte bizitakoarekin. Joko bat irabazi eta janaria lortuz gero, ondo banatuta ere kantitatea oso nimiñoa da. Esaterako, sardina poto bat irabazi eta taldekideekin banatu behar izan

genuen. Horrez gain, ahal duenak egiten du lo. Ez zaude ohe batean, kanpamentu aberatsean egonda ere lo gutxi egiten da, intsektuak leku guztietatik sartzen dira; oso gaizki pasatzen da. Dirudiena baino askoz ere gogorragoa da han bizi genuena. Gau batzuetan ez nuen lorik egiten, beste batzuetan, zortez, ordu pare bat egiten nituen. Eltxoak belarri ondolik pasatzean, Formula 1eko lasterketa baten soinua zirudien. Telebistatik edonork esan dezake ez dela horrenbestearainokoa, baina hara joan arte ez dakizu benetan "El Conquistador" lehia-keta zer den.

Dioten modura, irla gune zapaldu-gabea eta basatia da?

Bai. Ikusiko duzue telebistan, baina kanpamentu pobrea eta oso pobrea benetan jasangaitzak dira. Nabarmendu zuten, aur-

tengo kanpamentuak benetan zailak eta gogorrak izango zirela; eta esan dezaket, bete-betean asmatu dutela. Gainera, gizakiak ia ustiatu ez duen irla bat da, beraz, inguruan animalia ezberdin asko aurki daitezke. Ikusgarria, harrigarria eta gogorra da. **Psikologikoki prestatuta egon behar duzu horrelako reality batean parte hartzeko?**

Zalantzarik gabe, bai. Nire ustez, partaide gehienek kale egiten dute psikologikoki prestatuta ez daudelako. Telebistatik ikusten dena gehienbat probak dira, baina atzean dauden ordu hilak asko dira. Oso zaila da.

Kanpamentuaren arabera, gauza gehiago edo gutxiago egiten genituen, baina, batez ere, energia aurrezten saiatzen ginen. Egia esan, jan egin behar genuen eta lo egiteko lekuak prestatzea ezinbestekoa zen. Beraz, egitekoak bazeuden, baina janaririk ez bazegoen indarrak gordetzea garrantzitsua zen. Joko guztietan bezalaxe, ezinbestekoa da egoerari aurre hartzea eta pentsatzea.

Taldekideekin bizikidetzatza zaila da?

24 ordu ematen dituzu ondo eza gutzen ez dituzun pertsonekin, gosetuta eta deseroso. Hau da, edozer gauza jazotzen bada edo haserre bazaude, biderkatu egiten da egoera. Taldean haserrealdi asko eduki genituen, baina normala da hori.

Nola definituko zenuke telebista bidez ikus daitekeen lehia-keta, parte-hartzaile izan zarenaren azaletik?

Probatu beharreko gauza bat da jakiteko noraino iristeko prest zauden. Zeure gaitasunen muga non dagoen jakiteko programa bat da. "Conquis"-ekoa adrenalina mota berri bat izan da, lehia muturrera eramateko modu bat. Konturatu naiz nire bizitza izugarri baloratzen dudala. Ez dakizu zer daukazu galtzen duzun arte!

Askok jakin nahi dugu nolakoa den Julian lantzi.

[Barreak] Oso zirikatzailea da. Kabida gutxiko pertsona bazara, ezingo duzu Julian jasan. Baina, pertsona berezia da, bera tratatzen jakin beharra dago.

TELEBISTATIK ERRAZAGOA DIRUDI, BAINA BERTAN BIZI NUENA OSO BORTITZA IZAN ZEN



Nerea Arruti. EITB

Astelehenero ETB2 katean



Eltxo ziztadez jositako hanka.

Galdera lotsagabea: parte hartzea-gatik dirua irabazten al duzue?

Nik dakidanaren arabera, ez dugu ezer jasotzen. Gu hara goaz, geure borondatez. Programak egun batzuetarako egonaldia ordaintzen digu saioa hasi bitartean eta amaitzen denean; noski, bidaia ere haien esku. Eta, dakizuen bezala, konkistatzaileak diru dextente irabazten du. Zeure kabuz zoaz Karibeko abentura bizitzera, eta listo.

Euskarari dagokionez, arautua duzue zein hizkuntzatan hitz egin behar den denbora guztian?

"El conquistador" saioan euskaldun askok parte hartu dugu. Esaterako, nesken taldean askorekin euskaraz aritzen nintzen. Ondoren, kamera aurrean erdaraz egiten genuen, saioa jende askok ikusten baitu. Egia da, une batzuetan euskarazko esaldiak edo hitzak nahigabe ateratzen zitzaizkidala. Egoera bakoitza ezberdina da, eta batzuetan ezin da menderatu.

MENTALKI INDARTSUA IZATEA EZINBESTEKOA DA HORRELAKO PROGRAMAN PARTE HARTZEKO

NORBANAKO GISA PERTSONA BALIO ANIZTUNA NAIZELA ESANGO NUKE

SAIO EZBERDINETAKO PROBAK IKUSI NITUEN ETA HORIEN ARABERA PRESTATU NINTZEN



Cordillera blanca izeneko mendikatean barrena, Peru herrialdean. IGIÑITZ

"Nepalén bezala ez naiz inon sentitu"

AITOR IGIÑITZ OIARTZABAL BIDAIA

Hamabost urte daramatza munduan barrena, bizikleta gainean. Laura Martinez madrildarrarekin batera Asia eta Afrika zeharkatu eta gero, bakarrik dabil azken boladan

Xabier Lasa ANDOAIN

Jaioterrian, Andoain da egunotan; osasun krisialdiak utzi bezain pronto badoa berriro errepidera.

Nondik nora ibili zara azken boladan?

Estatu Batuetan eta Hego Amerikan. AEBetako Uthako eta Coloradoko parke nazional harriarrietatik igaro ostean, Mexikora abiatu nintzen, Sierra

Madreko mendikatean barrena. Caribe eta Pazifikoko kostetara jo nuen, eta Mexiko atzean utzita, Ertamerikara guztia zeharkatu nuen (Guatemala, Salbador, Honduras, Nikaragua, Costa Rica...) eta Hego Amerikako zati bat (Ekuador, Kolonbia, Peru) ezagutu nituen. Zehatz esanda Peruko iparralderaino, Cordillera Blanca mendikateraino

iritsi nintzen; bizikleta bertan utzi nuen, zain daukat, hortaz. Etorkizunean, Ameriketatik geratzen zait Peru hegoaldea, Brasil, Bolibia, Argentina eta Txile.

Azken urtea Californiako plantazio handiko granja batean aritu naiz, lanean. Gabonetarako etxera itzuli naiz, eta ahal bezain pronto, abiatu nahi nuke

berriro. Hori bai, pandemiak indarrean eta mugek itxita segitzen duten bitartean ez daukat mugitzeko gogo askorik; herrialde bakoitzak bere arauak dauzka, eta ez nuke nahi edozein tokietan konfinatuta geratu nahi. Izatekotan ere, zirrikituren bat sumatuz gero, Nepalerrako bidea hartuko nuke abaila batean, nahiz eta bizikletarik gabe izan. Munduko bazter ugari ezagutu ditut, eta han bezala ez naiz inon sentitu, diferentzia askorengatik. Nire ametsetako herria da.

Bukaera datarik ipini al diozu munduaren bira partikular horri?

Gero eta argiago ikusten dut bukaera non egon litekeen. Txile eta Argentina artean dagoen Tierra de Fuego artxipelagoan hain zuzen. Kalkuluak egiten hasita, urtebete beharko nuke zeharkaldi hori guztia egiteko. Baina auskalo! Helmuga eta denbora jakinik gabeko ibilaldia izan da nire bizitza orain arte, eta hala segitzea espero dut.

Egia esan, konforma erraza naiz, ez daukat askorik behar, apaindura gutxiko bizimodura ohituta nago, eta Kalifornian lanean irabazitakoarekin badaukatu bolada luze batez moldatzeko.

Mexiko, Kolonbia, El Salbador... Komunikabide handiei kasu eginez gero, indarkeriari lotutako albisteak datoz herrialde haietatik gehienbat.

Egia da Mexiko eta Kolonbia lehenengo bi postuetan daudela herrialderik biolentoenen sailkapenean. Mexiko ez da Amerikako herrialderik espektakularrena izango paisajearen aldetik, baina bertako jendea bereziki abegikor jokatu zuen nirekin. Kontrastean, azken urtetan kartelak jaun eta jabe egin dira, polizia ere horien menpe dago. Kolonbian, nik uste garai biolentoagoak bizi izan dituztela; bidean topatu nuen jendea beren bizipenak kontatzeko gogoz sumatu nuen.

Iruditzen zait biolentziak eta inpunitateak agintzen duten herrialdeak direla, eta horietan "nirekin ala nire kontra; nire kontra bazau, zuloan amaituko duzu" leloak funtzionatzen duela. Jendea ohitu egin da kultura horretara, zoritxarrez. "Ondo bizi gara besteen kontuetan sartzen ez garen bitartean" filosofia hori errepikatzen dizu jendeak, baina hori ez da bizitzea.

Herrialde batera sartu aurretik, informatzen zara zer errealitate bizi den bertan?

Bai, noski, baina argi edukita albistegi ofizialak tonu alarmista batean azaltzen zaizkigula, gertakari odoltsuak soilik argitaratzen dizkigutela; enbaxadako web orrietako ohar eta gomendioekin ere ez naiz fidatzen. Tokian-tokian topatzen ditudan herritarrak edo aurrez bertatik pasa diren nire antzeko bidaiariak dira iturri sinergiarrenak niretzat.

Aipatzeko gertakari larririk bai?

Afganistan eta Pakistango men-debaldea izan dira urte luze hauetan baztertu ditudan herrialde bakarrak. Bost urtez Asia eta Afrikako 30 bat herrialdeetan ibili ginen Laura eta biak, eta Namibian kanpindenda inguratu zuten lehoien pasarteaz aparte, kasu bakar batean bizitu genuen benetan estualdia: Etiopiako ekialdean kuadrilla bat metrailetak eskutan zituztela bidera atera zitzaigun, lapurtzeko asmoz. Baina suete ona eduki genuen, errepidean autoak sumatu eta ihesari ekin baitzioten agudo. Gainerakoan, azken aldian Ertamerika guztian ez dut ezus-teko gaiztorik bizitu.

Garbi daukat nola erreazio-
natu, halako muturreko egoe-
ratan: bizia kentzen ez didaten
bitartean, har dezatela nahi
duten guztia, dirua, bide-zorroa,
janaria, bizikleta... Nonahi topa
daitezke salbuespen mingarriak,
baina nekazari giroetako jendea
jatorra da normalean. Bizi-irau-
teko gutxieneko baldintzez gain,
inguruan lasaitasuna eta solas-
kide atsegin bat nahi dute. Ho-
rixe da euren anbizioa, ez dau-
kate arazoetan inplikatzeko
gogorik...

**Egunero toki ezezagunak bisita-
tzen... Beldurrarekin inmundizatu-
ta zaudela esan daiteke?**

Ez dut uste. Gizakia naiz eta
normala da sentitzea izua, eta
hala behar da izan, erne egoten
laguntzen baitizu! Baina senti-
mentu hori objetibizatzea eta
arrazionalizatzean dago gakoa.
Izan ere, burua lanean uzten
baduzu bere gisa, pelikula arra-
roak proiektatzen dizkizu, eta
horiei kasu eginez gero, hobe
etxean geratzea!

Gauak non pasa erabakitzea
izan daiteke gauzarik konpli-
katuena batzuetan, eta normal-
ki, kanpin-dendan edo herritar
eskuzabalen etxetan ez bada,
edozein ostatueta moldatzen
naiz.

**Tokian tokiko jendearekin kontak-
tua bilatzea dela zure lehen hel-
burua esan izan duzu beti.**

Bai, halaxe da. Bideari buruz
galdetzea izaten da jendearekin
lehen kontakturako arrazoia.
Nahiz eta zuzen noala garbi
jakin, aitzakia horixe erabiltzen
dut elkarriketa sortzeko bide
bazterrean topa dezakedan edo-
norekin. Beren bizitzaz, bizi-
moduaz, kulturaz, ohituraz...
jakiteko deseaten egoten naiz.
Saiaetzen naiz elkarriketa ez
dadin nire bizitzarengan enfo-
katu. Baina aldi berean, ulertzen
dut haiek ere interesa edukitzea
bizikletan gerturatu zaion gi-
zaki bakarti horri buruz. Bo-
rroka politik sortzen dira ho-
lakoetan, ea nork besteari in-
formazio gehiago atara... Non-
dik natorren galdetzen didate-
nean "aurreko herritik" erant-
zuten diet, baina ez dida-

**"HELMUGA ETA
DENBORA JAKINIK
GABEKO IBILALDIA
IZAN DA NIRE BIZITZA,
ORAIN ARTE"**



Aitor Igiñitz andoaindarra. AIURRI

te sinesten; daramadan piura
horrekin nola sinetsi...

**Bizikletan hara eta hona eta tras-
tez josita ibiltzeak erraztuko du
lehen harreman hori...**

Bai, noski. Herrialde batzuetan
besteetan baino lehenago hartzen
dute konfiantza, baina orohar,
bizikletak laguntzen du, bai.
Amerika osoan, esango nuke
Mexiko da herrialderik zoraga-
rriena, jendearen abegikorta-
sunari begira; gaztelania eta
antzeko kultura partekatzeak
ere laguntzen du horretan, ja-
kina.

Aitortu behar dut nire lehen-
lehen asmoa ez zela bizikletan
garraiatzea izan. Baina agudo
ohartu nintzen trenez, hegaz-
kinez, autobusez... bidaiatzea
ez zihoala nire filosofiarekin,
bizikletaren abiadura zela idea-
la niretzat.

**Nekazari giroko jendea aipatu duzu
lehen.**

Irizpide jakin batek markatu
nau hasiera-hasieratik, eta
oraingoaz ondo doakit: hiriak
ez zaizkit interesatzen, nahiago
ditut nekazari giroko eskualdeak
eta giza-komunitateak. Era ho-
rretan, bigarren edo hirugarren
mailako errepideak hautatzen
ditut normalki, nahiz eta alda-
pa pikoak eta mendi-portuak
igortzera behartuta egon.

Izan ere, ibilian-ibilian pila-
tutako eskarmentuak irizpide
hori berretsi dit: nekazari gi-
roko jende horrek edukitzen du
denbora tertulian jarduteko,
kanpotik datorren horrekin
patxadan egoteko. Hiritarra,

korrika eta presaka dabil nor-
malki, beto dauka zereginaren
bat eta ez dio ezertarako den-
borarik ematen; hiriko bizimo-
du kaotikoak berak eramaten
duela horrela jokatzera.

**Etixeratzeko gogorik ez al duzu
sentitu sekula bizikleta gainean?**

Urte hauetan muga fisikoak
ezagutzera iritsi naiz tarteka,
psikikoak ez. Bizikletan pedalei
eragin eta eragin, kristoren
pasada hartu eta gero, gorputzak
kieto egoteko agindu izan dit
maiz. Bada, orduan, lekuren
batean egun batzuetarako atse-
dena hartu, burua eta birrikak
arnas sanoez bete, eta bideari
ekin izan diot berriro. Okasio
horietan burutik inoiz ez zait
pasatu etxerako bidea hartzea.
Burutazio hori etorriko balitzait
noizbait, ez nuke dramarik
egingo horrekin. Oraingoaz, ez
dut gogo horretatik eduki, eta
orain hamabost urteko motiba-
zio nagusiari eusten diot; erre-
pide aurrean daukadan bide
zuzen edo errebuelta horren
ondoren, ea zer herrirekin, zer
jende klasearekin, zer paisajea-
rekin... egingo dudana topo.
Grina edo jakinmin hori dela
nire bide-laguna, alegia.

**Pobrezia egoerak ikusiko zenituen
bidean zehar...**

**"HIRIAK EZ ZAIZKIT
INTERESATZEN,
NAHIAGO DITUT
NEKAZARI GIROKO
ESKUALDEAK"**

Pobrezia zer den definitu behar-
ko genuke lehenbizi. Mendeal-
deko jendeari perspektiba falta
zaigu aurre juzguz betetako
analisiak egiterako orduan,
munduko zilborra garena iru-
ditzten baitzaigu. Guk pobretzat
jotzen ditugun herrialde horie-
tako herritarrak akaso eduki
dezakete eskasi materiala, bai-
na bermatua daukate egunero-
ko elikadura; soberan, berriz,
sozializatze denbora, hori da
eduki daitekeen aberastasunik
preziatuenetakoa. Ikusten dut
Andoaingo edo Euskal Herria-
ko jendea nola dabilen estresa-
tuta, ezin egunean ordu bat bere
bururi eskaini, kirola egiteko,
pasiatzeko, lagunekin egoteko...
Eta orduan ez nuke jakingo
zehazten nor den aberatsagoa,
hango ala hemengoa. Argi, gau-
za bat daukat argi: hemengoa
hango baino aberatsagoa ez
dela.

**Baina bihotza urratzen dizuten
egoerak topatuko dituzu bidean.**

Galdera horrekin gogoratu naiz
Ertamerikan nola topatu nuen
emakume bat bide bazterrean
janari pixka bat saltzen ari zela,
60 bat urtekoa zen. Harekin
solasean jarri eta adierazi zidan
plastiko zahar batekin eta ha-
maka batekin ibiltzen zela hara
eta hona, hori zela bere bizi-
modua. Halako egoera pertso-
nalak egiten zaizkit gogorrenak
irensten. Urtetan aurrera doa-
zen pertsonak, eta inongo ba-
besik, ez familiarena ezta esta-
tuarena. Horiek bai dauzkatela
motiboak kexatzeko, ez mende-
baldeko pribilegiatuek!

Emakumeak izaten dira, gai-
nera, babesgabeenak beti. Nahiz
eta beraiek izan sostengu na-
gusia munduko giza komunitate
gehienetan. Eurek ekartzen
dituzte ogia eta gainerako jakiak
etxera, eurek kudeatzen etxeko
ekonomia, eurek egiten zaintza
lanak haur eta zaharrekin, eu-
rek sustatzen eta transmititzen
komunitatearen kultura... Gi-
zonengatik balitz...

Emakumeek ondotoxo dakite
ze den enpatia sentitzea. Maiz,
izerditan, lokatzaz beteta...
ikusten nautenean bizikleta
gainean, gizajotzat hartzen naut-
e, eta errukia sentitzen dute
niregatik ura, jana... eskaintzen
didate. Amatasun instintua
itsatsita daukatela izango da,
edo ez dakit zer.

Laura Martinezek eta biek urte
mordoa elkarrekin bidaiatu duzue.

Bai. Nepalen elkar ezagutu ge-
nuen, eta hamar urte egin di-
tugu bidelagun. 2018an nork
bere bidea hartzen erabaki
genuen arte. Geroztik, Laurak
El mundo es mi casa liburua
argitaratu du, elkarrekin au-
rreneko bost urteetan egindako
bizimodu nomada kontatuz.
Nepal hasi eta Afrikara bi-
tarte bidaia, alegia. 500 orrial-
deko liburua, makina bat ar-
gazki zoragarri..., liburu guztiz
gomendagarria (*elmundoesm-
casa.com* web orrian erosi lite-
ke).

**Maiz galdetuko zizuten zer ote den
hobea, bikotearekin ala bakarka
bidaiatzea.**

Urte zoragarriak izan dira Lau-
rarekin egindako hamar urteak.
Baina bakarka ere badakit bikain
asko bidaiatzen; nire buruare-
kin primeran moldatzen bainaiz.
Gizakiok lagunartekoak gara,
eta alderdi hori oso ondo asetzen
dut egunero bidean topatzen
dudan jendearekin, sortzen di-
ren era guztietako solasaldiekin.
**Gorputzak ez al dizu eskatzen zure
bizipenak liburu, hitzaldi edo bes-
te formaturen batean azaltzea?**

Asko jota, argazki-erakusketa-
ren bat egiteak erakartzen nau.
Bestelakoan, ez dut aparteko
premiarik sentitzen nire bizitza
kontatzeko, burua promoziona-
tzeko edo bidaiarekin segitzen
lagungarri den dirua biltzeko.
Laurak eta biok sare sozialetan
sortutako kontuetan ez dut ezer
idazten; berak erabiltzen du,
liburua promozionatzeko.

Ulgargarria da jendearentzat
ezohikoa, harrigarria egitea
nire 15 urteko ibilbidea. Izate-
kotan ere, nire meritu bakarra,
edo emandako pausorik zailena,
bere garaian hemengotarrek
daukagun segurtasun faltsu
hori harrika bota eta bidean
jartzeko hartu nuen erabakia
izan daiteke.

Hain zuzen, eskaini izan di-
tudan hitzaldietan zenbait ent-
zule txundituta sumatu izan
ditut nirekin. Poztu egiten naiz
hala gertatzen denean, eta saia-
tzen naiz motibatzen bizikletan
bidaiatzera animatu daitezen.

**"ABENTURA HONEN
BUKAERA TXILE ETA
ARGENTINA ARTEAN
DAGOEN TIERRA DE
FUEGON EGON LITEKE"**



Besteak beste, lehen sektorekoen jarduna nabarmendu nahi izan du egileak. BEÑAT LIZASO

Betikotasunari edertasuna zukututa

BEÑAT LIZASO GARCIA KAZETARIA

Koronabirusak herritarrengan utzitako arrakala bistaratzea du Beñat Lizaso Garciaren azken fotokazetaritza lanak: "Zomorroaren kronika bat". Erakusketa zabaltzear da Bilbon

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Cabarcenoko natur parkean, hiru urte besterik ez zituela hartu zuen lehen aldiz Beñat Lizaso Garcia urnietarrak ar-

gazki-makina; harrezkero, eguneroko ohitura bihurtu du iragankorra betikotzeko afizioa, etorkizunean ofizio bilakatu nahiko lukeena. Jaunartzean

oparitu zion familiak bere lehen argazki-kamera, baina ez zen argazkilaritzatik bizi daitekeela jabetu harik eta Oreretako Katiuska enpresarekin ezkontzetan

lanean aritu arte. Handik gutxira, Lasarteko tokiko komunikabidean, Txintxarrin, egon zen lanean orain bi urte, eta bertan ezagutu zuen gertutik fotokazetaritza. Orain, EHUn Kazetari-tzako gradua amaitu berritan, ezusteko aukera paratu zaio begien aurrean, izan ere, bere argazkiek Bilboko Bizkaia Aretoaren atarira eraman dute: hilaren 28tik hasita, hilabete batez erakusketa bat egongo da ikusgai, bere azken lana hizpide, "Zomorroaren kronika bat".

Unibertsitateko ikasketen azken txanpan harrapatu zuen Lizaso pandemiak, hain zuzen ere, gradua amaitzeko egin beharreko proiektuan lanean. Hala, Euskal Herriko gizartearen erradiografia egin nahi zuen argazki-erreportaje formatuan. Baina bere jarduna berrasmatzeko premia ikusi zuen itxialdia hasi zenean, hasierako asmoak koronabirusak iraungita. Hortaz, lanaren mui-na aldatu zuen, osasun-larrialdiak

gizartean hartutako presentzia ezin ukatuta: "Nigan eta nire ingurukoengan zomorroaren eragina nolakoa izan den azaltzen duen kronika bat da, argazki bidez kontatua". Orotara, bost argazki-bildumak osatzen dute proiektuaren bizkarhezurra, nahiz eta erakusketan bertan lau egon soilik. Argazkilaritzaren hainbat esparruk gidatuta atera ditu argazkiak, kaletik hasi eta bere baitaraino.

'Etxeko arrastatzea'

"Itxialdiko egun batean, kama-ra hartu eta bikotekideari argazkia atera nion gitarra jotzen", azaldu du Lizasok, "eta une horretan bertan argi ikusi nuen egoera horretatik abiatuta bazezgoela zer kontatua". Gauzak horrela, proiektuari ekin zion eta bi astez senideen atzetik argazki-kamerarekin ibili ostean, lanari itxura ematen hasi zitzaion. Fotokazetaritza, ezer baino lehen, autobiografikoa

dela dio Lizasok, Tino Soriano National Geographic aldizkari-ko argazkilariaren hitzak gogora ekarrita: “Argazkilaria bera kokatzen da gertakaria jazo den lekuan, momentuan eta prota-tonistekin, eta bere begietatik, argazki-kameratik, kontatzen du bizi duena”. Ondorioz, gehitu du “oso intimoak” diren argazkiek osatzen dutela familiarri zein etxe barruko bizimoduari zuzendutako atala; hala nola, gurasoen begiradak eta besarkadak, bikotekidearen negarrak edota anaia gaztearen nerabezaroko uneak landu ditu, baita etxe barruko bakardadea ere.

Bestalde, intimitatearen eta kontatu nahi zuen istorioaren arteko muga lausoa alde batera utzi zuen Lizasok erretratuak ateratzeko orduan: “Pertsonaletik asko du lanak, zeren atal honetan ni neu argazkietan atera ez arren, nire begiak baitira kontaktaren egile”. Gainera, adierazi du senitartekoek ez ziotela inongo trabarik jarri eta esperientzia “izugarria” izan zela: “Askok lagundu naute, eta uneoro onartu dute argazkiak ateratzea”.

Aski ezaguna zaio Lizasori bere etxea. Alabaina, azaldu du erreportajea lagungarria izan zaiola bertako ertzeei beste begirada batetik erreparatzeko: “Ariketa ederra izan da etxea beste modu batean ikusten ikasteko”. Adibidez, sukaldeko leihoetik sartutako argia “itzela” zela jabetu zen egilea amari –ilea tindatu berritan eta aluminiozko papera buruan zuela– argazkia ateratzean: “Konturatu naiz ez dela azpiegitura handirik behar argazkiak ateratzeko eta horien bidez istorioak kontatzeko, transmititzeko”.

‘Itsasoa ere grisa bihur daiteke’

EAEn musukoa derrigorrezkoa zela iragarri zuten egunean joan zen Lizaso kamerak hartuta Donostiara: “Adineko pertsonen argazkiak ateratzea nuen helburu, beren bakardadea islatzeko”. Eta egin, horrelaxe egin zuen: “Maketatzerakoan, ohar-tu nintzen hainbat argazkitan kolore jakin batzuek zutela indarra”, eta ildo horri eutsita egituratu zuen argazki-bilduma; gorria, batetik; berdea, bestetik... Alabaina, atalaren azala zuri-beltzean izatea erabaki zuen, “bakardadea gris kolorearekin erlazionatu daitekeelako”. Do-



Beñat Lizaso Garcia, Bizkaia Aretoko erakusketan. AIURRI

nostia bigarrenenez joan zenean hartu zuen erabakia, hain zuzen, itsasoari begira zegoela. “Teleobjetiboarekin emakume bat ikusi nuen piraguan ibiltzen”, oroitu du Lizasok, “eta ba al da ezer itsasoa baino zabalagorik? Ba al da itsasoa senti zenezaken bakardadea baino handiagorik?”. Horrenbestez, bi egunetan egituratu zuen adinekoei zuzenduriko atala, eta “lagungarria” egin zitzaion hiria beste begi batzuekin ikusteko: “Ez naiz

batere Donostiazalea, baina egun horretan etxera itzuli eta gurasoei esan nien: gaur gustatu egin zait Donostia”.

‘1998an jaioetako horiek’

Argazkilariaren asmoa ez dator beti bat azken emaitzarekin; horrenbestez, egileak adierazi du “inprobisatzeko gaitasuna” ere izan behar dela fotokazetaritza hizpide denean. “Gizartea orokorrean” aurkeztu nahi zuen Lizasok erreportaje soziologi-

koan. Hala, erretratuak ateratzeari ekin zion, osasungintzako langileetatik hasi eta herria osatzen duten beste hainbat sektorerara bitarte. Dena den, datak gainera etorrita, bildumak beste norabide bat hartu behar zuela ohar-tu zen; beraz, herrira jaitsi zen eta plaza batean ipini, bertatik igarotzen ziren herritarrei erretratu bat atera asmoz. Baina euriak bere aurreikuspenak zapuztu zizkion, eta ondorioz, beste zerbaitean pentsatu behar izan zuen; laguntza eskatu zien bere adineko lagunei: “Lagunen kurrikulumek osatzen dute atala, bakoitzaren lauzpabost erretratuk lagunduta”. Egilearen hitzetan, “gazteek, egun, jasaten dugun kriminalizazioa” islatzea du helburu, baita lan mundura salto egiteko zorian pandemiak nola eragin dien azaltzea ere: “Erakusketan baloratu genuen testuek ez zutela nahikoa indar, eta, beraz, erretratu bat aukeratu ez ezik, bideo bat egitea ere erabaki dut; beren lekukotzak biltzen dira bertan”.

‘Gelditzen ez direnak’

Pandemiak hamaika alorren jarduna etetea ekarri badu ere, badira, egilearen esanetan, “gelditu ez direnak”; horiexek Lizasoren lanean Gurutzeta baserriko Maite Otaño eta Joseba Lete dira: “Biak ala biak gertukoak ditugu; errepedeaz bestal-

de dituzte beren lurrak, eta apur bat gorago, baserria”. Argazkilariak azaldu du lehen sektoreko langile asko dagoela Urnietan, eta nahiz eta bera “kalekumea” izan, betidanik izan dituela baserriak inguruan.

Gauzak horrela, egun batean, goiz-goizean esnatu eta baserri-tarrekin batera joan zen Hernaniko plazako merkatura. “Ez zen egun ona argazkiak ateratzeko, zeren eguzkiak gogor jotzen baitzuen. Alabaina, lortu nuen kontraste politik egitea”, azaldu du Lizasok. Horrez gain, negutegian sartu zen, baita baratzetan ere. Gainera, egileak gaineratu du pozik dagoela berriki martxan jarri den Urniet Km0 egitasmoarekin: “Nire lanean lekua eman diet, eta, beraz, ilusio handia eman dit ikusteak herriak ere balioan jarri duela lehen sektoreko lana”. Erakusketari dagokionez, barazki-kutxak ipini dituzte argazkien alboan, ikuslea Urnietako Gurutzeta baserrira gerturatzeko.


Inflexio puntua

Kazetaritzako ikasketen azken proiektua du Lizasok “Zomorrotaren kronika” fotoerreportajea, baita etorkizunari begira egingo dituen hamaika lanen lehena ere. Lauzpabost hilabeteko prozesua izan da, egilearen iritiz, “luzea, pausatua eta landua”. Horrez gain, aitortu du fotokazetaritza “sakonago” ezagutzeko eta etorkizunean horretan jarduteko gogoia areagotu zaiola.

Bizipen pertsonaletatik abiatutako lana da, bere begietatik ikusitakoa kontatzea helburu izan arren, barrura begira ere ipini duena. “Guztiok bizi izan dugu egoera arraroa; horregatik, jende asko sentituko da identifikatuta argazkiak ikusi orduko”, dio Lizasok. Askotariko gakoak eman dizkio proiektuak arlo profesionalean aritu ahal izateko. Momentuz, eskuartean ezer berririk ez badu ere, gogotsu dago berriki ekin dion bideari jarraipena emateko: “Ikasten jarraituko dut, baita argazkiak ateratzen ere. Argazkiak atera, atera eta atera, orain arte legez”.

“ARIKETA EDERRA IZAN DA ETXEA BESTE MODU BATEAN IKUSTEN IKASTEKO”

Erakusketa hilabetez zabalik, Bilboko Bizkaia Aretoran



Fotokazetaritzako lanerako ateratako lehen argazkia. BEÑAT LIZASO

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 28

ANDOAIN Erakusketa

Leire Salaberriaren ilustrazio lanez gozatzeko aukera dago, aste hauetan. **Bastero Kulturunea.** **Urtarrilak 12-otsailak 4.**

ANDOAIN Kontzertua

Korrontzi taldeak eta Xabier Amurizak "Koplariak" izeneko diskoa aurkeztuko dute. Oinkari dantza taldeak ere parte hartuko du emanaldian.

19:00, Bastero. 12 euro.

ANDOAIN Hitzaldia

Oharra: Bertan behera geratu da "Guztiak dantzari" liburuaren aurkezpen ekitaldia. Aurrerago antolatzeko asmoa iragarri du Larramendi Bazkuna liburuaren argitaratzaileak.

Bertan behera. Bastero.

URNIETA Matrikulazioa

Urte berriarekin batera, abian dira B2 eta C1 mailako ziurtagiria prestatzeko ikastaro berriak AEK euskaltegian.

Errekalde kalea, 1.

607 592 864 / urnieta@ae.eus

ANDOAIN Lehiaketa

Berdintasun Sailak kartel lehiaketa deitu du, Martxoak 8aren harira. Ondoko testua azaldu behar da, nahitaez: "Martxoak 8: Emakumearen Nazioarteko Eguna 2021". Sari bakarra banatuko da, 450 eurokoa. Oinarriak Basteron.

Epea: Otsailak 10. Bastero.

OSTIRALA 29

URNIETA Odol-emailak

Xehetasun guztiak, 15. orrialdean. **16:30, Lekaio.**

LARUNBATA 30

URNIETA Batzarraldia

Denda Berri taldearen batzarraldia. Hiru aztergai nagusi izango dira: 2020ko diru-sarrera eta gastuen aurkezpena, eta onarpena hala badagokio. 2021erako jardueren egitasmoa, eta aurrekontua. Galde-erreguak.

17:30, Denda Berri.



Urdangarin, Sistiaga eta Emezabal, Basteron entseguan. **AIURRI**

ANDOAIN Mozart-Bruch Connection

Andoainen bizi den Esti Sistiaga piano-jotzailea, Mikel Urdangarin Andoaingo musikaria eta Mikel Emezabal Andoaingo Udala Musika eskolako irakasleak emanaldi berezia eskainiko dute bi artista klasikoaren obrak biziberrituz.

Otsailak 4, osteguna. 19:00. Bastero Kulturunea. 4 euro.

ASTEARTEA 2

ANDOAIN Elkarretaratzea

"Ostalaritza aurrera", lemapean. **11:30, Goikoplaza.**

OSTEGUNA 4

ANDOAIN Kontzertua

Esti Sistiaga, Mikel Emezabal eta Mikel Urdangarin.

19:00, Bastero. 4 euro.

OSTIRALA 5

ANDOAIN Kontzertua

En Tol Sarmiento musika taldea.

19:00, Bastero. 12 euro.


IGANDEA 7

ANDOAIN Haur antzerkia

Hansel eta Gretel, Grimm anaien klasikoa era dibertigarrian.

17:00, Bastero. 4 euro.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Elfkings**

Haurrentzat, euskaraz.

Larunbata, 30: 16:30.

Igandea, 31: 16:30.

La Bonne Epouse


Helduentzat.

Larunbata, 30: 19:00.

Igandea, 31: 19:00.

Astelehena, 1: 19:00

Ikuslearen eguna



SINOPSISIA

**La bonne épouse**

Zuzendaria: Martin Provost. **Gidoia:** Martin Provost, Séverine Werba. **Aktoreak:** Juliette Binoche, Yolande Moreau, Noémie Lvovsky, Édouard Baer, François Berléand, Lily Taieb,... **Herrialdea:** Frantzia (2020). **Generoa:** Drama, komedia. **Iraupena:** 109 min.

Emazte onaren manuala

Paulette Van Der Breck nagusi den eskola emaztegaiei bideratuta dago. Asmoa argi dago: Etxeko lanak txintik esan gabe egingo dituen neskatxak

hezitzea. Baina bere asmo sendo horiek egun batetik bestera eroriko dira, alargundu eta ondasun guztiak galtzen dituenean.

Elfkings

Zuzendaria: Ute von Münchow-Pohl. **Herrialdea:** Alemania (2020). **Generoa:** Marrazki bizidunak, komedia. **Iraupena:** 78 min.

Haur zinema, euskaraz

200 urte luzez Elfkingsak lurrazpian bizi izan dira. Egund

batean, ordea, Helvi, Kipp eta Butz lur azalean agertuko dira.



Urnieta
udala



andoainDARRA
euskaraz

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Manex
Etxeberria Lasa
Zorionak Manex!!
Otsailaren 6an, 17
urte! Ziztu bizian
zoaz! Gozatu
bizitzako egun
bakoitza!!
Ondo ospatuko
dugu!



ANDOAIN
Iker eta Haitez
Ikerrek 8 urte eta Haitezek 5 urte.
Zorionak bikote eta muxu pila. Oso harro
gaude zuetaz! Ikaragarri maite
zaituztegu!!! Amabx, aitatxo eta Hegoa.
zaituztegu!!!



ANDOAIN
Iker eta Tio
Imanolek, urtarilaren 31n, 16 urte eta
Maialenek, otsailaren 7an, 27 urte!!
Bidaiauko dugu aurren? Amets egitea
librea da eta!!



ANDOAIN
Iker eta Tio
Etxeko beterranuk 98 urte bete zituen
urtarrilaren 23an. Ikerrek, otsailaren
9an, 24 urte. Ze sasoitsu zaudeten, biba
zuek!!



ANDOAIN
Irune eta Aitor
Irunek, urtarilaren 30ean, 8 urte egingo
ditu eta Aitorrek, otsailaren 2an, 36
urte!! Pilla pillata patata tortilla maite
zaituztegu!



Santa Eskerik gabeko urtea

Larramendi Bazkunak azken 28 urteetan antolatu izan du kantu-erronda. Eta Goiburu aldean auzotarrek ere baserri baserri joateko ohitura zuten. Aurren ezinezkoa izango da, COVID-19aren izurritea dela-eta.



GOIAN BEGO

Imanol
Egibar Juanena

Andoainen hil zen 2021eko urtarilaren 24an, 92 urte zituela.

Andoaingo Udaleko zinegotzia 1979-1983 eta 1983-1987 legeintzaldietan.

ANDOAINGO UDALA

Andoainen, 2021eko urtarilaren 25ean

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian.
Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus
Sar zaitetz "Zorion agurrak" atalean,
eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia
igotzen diren unetik, urtebetetze
egunera bitarte, ikusgai izango da
webgunean. Ez dadila tamaina handiko
argazkia izan.
Tamaina editatzerik ezean, zorion-
agurra helarazteko erabili ezazu posta
elektronikoa.

diseinua@aiurri.eus
Mezua bidali Aiurriko posta
elektronikora, eta idatzi: izen-abizenak,
herria, urtebetetze-eguna eta
nahi duzun testua.

Arantzibia 4-5, behea
Etor zaitetz bulegora, Andoainera.
Telefono zenbakia: 943 300 732.

ESKELAK JARTZEKO: 943 300 732
edo **publizitatea@aiurri.eus**

► Hileta egunean eskela Aiurri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Aiurri astekarian eta
Aiurri.eus-en: 160 € + BEZ /
Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ /

► Eskela mota guztiak Aiurri astekarian + Aiurri.eus-en: 140 € + BEZ /
Aiurriko harpidedunentzako 90 € + BEZ

Eskelak
Aiurriin:
90 euro

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA
Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.

ANDOAIN
Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 670.

OSASUN ALORREKOAK
Andoain: 943 006 670.
Urnieta: 943 006 680.
Larrialdiak: 943 461 111.
Osasun Aholkuak: 900 203 050.

ODOL-EMAILEAK



URNIETA
Urtarrilak 29, ostirala.
16:30. Lekaio Kultur Etxea.
Ohiko odol emaleei, zuzenean
deituko diete Odol Emaleen
elkartetik, eta dei horretan
adieraziko diete, zein egunetan eta
zein zenbakitara deitu beharko
duten txanda hatzeko. Hori bai,
katarroa, mukiak edo ez tula
bezalako sintomak dituzten
pertsonei ez gerturatzea eskatzen
zaie.
Hitzordua hartzeko: egun
berean, goizez, 08:30etatik
aurrera, 943 007 885 telefono
zenbakira hots eginda.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN
Larunbata 30, igandea 31
Diaz: Kale Nagusia, 19.
943 592 057. Andoain.

URNIETA
Larunbata 30, igandea 31
Etxebarria: Ande kalea, 48.
943 551 793. Hernani.



Pintxoak Andoaingo Hiru jatetxe barran, pandemia aurreko garaian ateratakoa. HIRU

Taberna-jatetxean eskatu eta etxera eraman

Ostalaritza, oro har, itxita dago. Baina jendaurreko arreta eskaintzen dionik bada, Eusko Jaurlaritzak ezarritako neurriak betez. Etxera eramateko janaria eskaintzen ari dira. Hauxe da Andoaingo eta Urnietako zerrenda eguneratua

Erredakzioa ANDOAIN/URNIETA

Menuak, razioak, plater konbinatuak edota bokadiloak barra-barra saltzen ziren lehen, pandemia aurreko garaian. Lagunarteko edota etxeko bilkura asko taberna eta jatetxeetan egiten ziren, eta lanerako bazkariak ere ez ziren gutxi. Ostalaritza gunetan ezinezkoa da, eremu gorrian daudenez.

Zenbait ostalarik ez dute negozioa erabat eten, eta etxerako zerbitzua eskaintzen ari dira. Aiurri.eus gunean zerrenda eguneratzen ari gara, ordutegiak eta xehetasun gehiago erantsiz.

Amama Klaudia

Zumea plaza, 5. Telefonoa: 943 03 16 15. Enkarguak egiteko ordutegia: Eguerdiko 13:00ak bai

no lehen, bazkaria eskatzeko. Iluntzeko 19:30ak baino lehen, afaria eskatzeko. Ordutegia: Ostegunetik igandera, ordutegia eskaerak egin eta jasotzeko, ordutegia: 11:00-14:00 / 17:00-20:00.

Anqara Doner Kebab

Kaleberria, 12. Telefonoa: 943 30 42 89. Etxez-etxeko zerbitzua, aste osoan zehar.

Aterpe jatetxea

Goikoplaza, 7. Telefonoa: 943 11 79 86 / 695 700 717. Eskaerak egin eta jasotzeko ordutegia: Astelehenetik igandera: 09:00-15:00. Ostirala eta larunbata: 18:00-21:00.

Babexa

Berria, 12. Telefonoa: 943 30 36 92. Etxez-etxeko zerbitzua. Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 19:00-21:00. Larunbata eta igandea: 11:00-14:00 / 19:00-21:00.

Etorbidea taberna

Bazkardo plaza, 2. Telefonoa: 604 21 94 07. Pintxoak eta bokadiloak eramateko. Ordutegia: 08:00-20:00.

Gaztañaga Sagardotegia

Sagardo botilak: Telefonoa: 630 12 25 62. Buruntza auzoa. Etxez-etxeko zerbitzua.

Hiru jatetxea

Juan Bautista Erro kalea. Telefonoa: 943 59 36 00. Ordutegia, goizez: Astelehenetik ostiralera: 10:00-15:00. Larunbata eta igandea: 11:00-15:00. Ordutegia, arratsalde: Ostegunetik larunbatera: 18:00-21:00.

Iturri

Bazkardo plaza, 8. 15:00ak arte eska daiteke eguneko menua. Telefonoa: 943 24 42 72.

Mizpiradi sagardotegia

Sagardo botilak: Telefonoa: 943 59 39 54. Leizotz, 14. Etxez-etxeko zerbitzua.

Oloki taberna

Goikoplaza, 4. Telefonoa: 943 30 06 03 / 685522465. Astelehenetik igandera: 09:00-21:00.

Pizzeria 4'EM

Agustin Leitza, 5. Telefonoa: 688 85 87 73. Etxez-etxeko zerbitzua.

Urnietako taberna eta jatetxeak

Aballarri taberna

Telefonoa: 943 33 05 25. Hamburgesak, tostak, ogitartekoak, edariak. Ordutegia: Astelehenetik igandera, 13:00-15:00. Ostegunetik igandera, 19:30-21:00.

Belandi taberna

Telefonoa: 943 33 02 23 / 602 078 912. Kebab, razioak, hamburgesak, edariak. Ordutegia: Astelehenetik igandera, 13:00-21:00.

Goi-mendi taberna

Telefonoa: 943 55 40 84 / 690 323 995. Pintxoak, ogitartekoak, kroketak, txikiak, edariak. Ordutegia: Astelehenetik igandera, 08:00-15:00. Asteburuan: 11:00-15:00.

HK10 Hotela

Telefonoa: 943 33 73 57 / 684 419 068. Egunekeo menua eta kafetegiko karta. Ordutegia: Astelehenetik igandera, 13:00-15:30 / 19:00-21:00. Eskaerak egun osoan zehar.

Oianume

Telefonoa: 943 55 66 83. Egunekeo menua, menu berezia eta sagardotegiko menua. Ordutegia: Astelehenetik igandera, 12:00-15:00 / 19:00-21:00.

Riojano taberna

Telefonoa: 943 12 31 48. Ogitaratekoak, hanburgesak, plater konbinatuak, oilaskoa. Ordutegia: Ostegunetik igandera, 12:00-16:00 / 19:00-21:00.

Zaldundegi jatetxea

Telefonoa: 943 55 10 08. Plater konbinatuak, pintxoak, razioak, ogitartekoak. Ordutegia: Ostirala eta larunbata, 19:00-21:00. Larunbata eta igandea, 12:00-14:00.

JASO AIURRIKO ALBISTEAK TELEGRAMEN!



- Jaitsi Telegram aplikazio ezaguna.
- Sartu, **Aiurri Urnieta**, **Aiurri Andoain** edo **Aiurri Aiztondo** kanalean.
- Batu zaitetz (UNIRME) eta jaso eguneko albiste nagusiak.

ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK

